

Zuhotza
euskarako elkarlana
deba

Berriketan


Debako herri aldizkaria - 189. alea - 2014ko urria



Iragana gogoan, berezia
izan da Euskal Jaia



ZURE ENTZUMENA ZAITZEN



RPS: 183/12

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

MULTIÓPTICAS Uzuri

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak



Mobila: 699 975 206
Tel./faxo: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

HONDARTZA, 2 - BEHEA
20820 DEBA (GIPIZKOA)

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482
ase.deba@teleline.es

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1. behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

oskarbi



Pintxoak
Ogitarakoak
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9
Tel. 943 029 488 - 618 644 014
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)



Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

English Academy
**NORTH
STREET
ENGLISH**



Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba

Bordatxo

JATETXEA

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Ariak: 20:00 / 23:00

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak



Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba
Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:
Zuhatza Euskara Elkarte
Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:
Nagore Dorransoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorransoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbietta, Mikel Aizpurua, Debako Gazte Asanblada, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea:
Izaro Aulestiarte
Azaleko irudia:
Erredakzio taldea

Publizitatea:
Joseba Escudero eta Koldo Aperribai
Tlfnoa.: 943 19 13 83

Logotipoaren diseinua:
Iñaki Elosua

Maketazioa:
Leire Rubio
Inprimategia:
Euskalinpri

Tirada:
1.400 ale
Lege gordailua:
SS-246-2009
ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako enertzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

argitaratzailea



laguntzaileak



aurkibidea

04-05

Kolaborazioak: Debako Gazte Asanblada ("Hamaika bitxikerria"), Nekane Goikoetxea ("Geolokalizazioak")...

06-09

EUSKAL JAIA

Debako Euskal Jaia 1964-2014; aurtengo egitarau bereziaren errebasoa



10

ALBISTEA

Tene Mujika bekaren laguntzaz idatzitako liburua aurkeztu du Josu Martinez bilbotarrak



Irudia: Elkar

15

KRONIKA

Igon Mancisidor kirolaria: "The North Face Ultratrail du Montblanc"



16-17

LABURRAK

Javi Zulaikak hirugarren aldiz irabazi du Kontxako Bandera, Burdin Kurutzek eta Luzarok antolatutako mendi irteerak, Mintzalagun egitasmoa abian...



18

ZERBITZUAK

Hamaika bitxikeria

Kaixo, *Berriketan* zaleok! Gaurko honetan munduko hainbat bitxikeria bildu dizkizuegu, interesgarri egingo zaizkizuelakoan. Hona hemen:



Debako Gazte Asanblada

- 1.- Pila batek 175000 litro ur kutsa ditzake.
- 2.- 100 aldiz aukera gehiago duzu jandako zerbaitek intoxicatzeke marrazo batek jan zaitzan baino.
- 3.- Everesteko tontorrean arrautza batek irakiteko 18 minutu behar dira.
- 4.- Eguzkia irteten edo sartzen denean kamioi gorriek beste kamioiek baino istripu gehiago izaten dute, ordu horietan gorria beltz ikusten delako.
- 5.- Zure etxeko hautsaren gehiengo pertsonen azala da.
- 6.- Ardiek ez omen dute mugimenduan dagoen urik edaten, euren isladak mareatzen dituelako.
- 7.- New Yorken konbinatzen ez duen arropa janzteagatik atxilotu zaitzakete.
- 8.- Shakespearek inoiz ez zituen bere lanak kaleratu.
- 9.- Kalifornian ilegala da sagu tranpak erabiltzea, ehiza baime-nik gabe.
- 10.- Argaltzeko 28000tik gora dieta daude erregistraturik.
- 11.- Oilo baten hegaldiaren munduko errekorra 13 segundokoa da.
- 12.- Paperezko hegazkin batena 29 segundo eta 57 metrokoa.
- 13.- Mundu osoko garabien laurdena Dubaien aurkitzen da.
- 14.- Thomas Edisionek elefante bat elektrokutatatu zuen bere esperimentu batean.
- 15.- Estatu Batuetako lurralderen batean ezin da haizearen aurka txisturik bota.
- 16.- Urtero, 11000 amerikar lesionatzen da posizio sexual arraroekin saiatzeagatik.
- 17.- Jirafek belarriak garbi ditzakete euren mihiaz eta gainera inongo soinurik emititzen ez duten ugaztun bakarrak dira.
- 18.- Virginian debekatua dago, norik ordainduko duen jakiteko, txanpona botatzea.
- 19.- Himalaia mendikatea 0,0000000004566 km orduko abiaduran hazten da garaieran.
- 20.- Giltza ingelesa smakizun suediarra da.
- 21.- Olagarroek 3 bihotz dituzte.
- 22.- Suedia osoan Tokion baino biztanle gutxiago dago.
- 23.- Uneoro munduko biztanleriaren %0,5 inguru mozkorra dago.
- 24.- Zeelanda Berriko 8 emakumetatik bat familiar zuzen batek bortxatu du noizbait.
- 25.- Lau mugikor palomita pakete baten inguruan jarri eta, deitzen badiezu, hazietako batzuk lehertzen hasten dira.
- 26.- Batezbeste, bizi osoan zehar 8 arma irensten ditugu aho zabalik lo egiteagatik.
- 27.- Guinness Liburua Errekorren Guinness Liburuan dago 1974an azkarren saldu zen liburua izateagatik.
- 28.- Harreman sexuak boxeoan aritzeak baino bi aldiz kaloria gehiago erretzen dituzte.
- 29.- Orain 10.000 urte bizi itxaropena 28 urte ingurukoa zen.
- 30.- Popeye sortu zenean, Estatu Batuetako espinaka kontsumoa %33 handitu zen.
- 31.- Astoek pertsona gehiago hiltzen dute urtean, aire istripuek baino.
- 32.- 54 estatubatuaretik batek abduzitu izan dela dio.
- 33.- Izen ohikoena Mohamed da.
- 34.- Las Vegasko kasinoetan ez dago ordularirik.
- 35.- Zientzialarien esanetan, juizioko haginak, apendizeta eta hankako hatz txikia galdu egingo ditugu, eboluzioaren eraginez.
- 36.- Beti izango duzu begi bat bestea baino handiagoa.
- 37.- Perun 5 gizonetik bat homosexuala da.
- 38.- Frantzia debekatua dago zerri bati Napoleon izena jartzeko.
- 39.- Pagonofobia bizarrei beldurra da.
- 40.- Munduan dauden 6.900 hizkuntzetatik 6.300 galzorian daude.
- 41.- Kubo medusek 24 begi, 4 garun eta 60 ipurtzulo dituzte.
- 42.- Inurriek goizetan nagiak ateratzen dituzte, lorik egiten ez duten arren.
- 43.- Amesgaizto ohikoena toki garai batetik erortzea da.
- 44.- Biharko, irakurritakoaren %90 ahaztuko duzu.



Besterik gabe, eta gustuko izan duzuelakoan, beste bat arte!

Miren tomate-saltzailea

Miren baserritarra da eta egunero etortzen da herrira tomateak saltzera. Bere tomateak hirunaka edo launaka saltzen ditu, ez gehiago, eta horregatik egoten da egun osoan merkatuan.

Egun batean, herri horretan uda pasatzen zegoen turista frantses bat kon-turatu zen andre horrek egun osoa bere tomateak saltzen pasatzen zuela. Saldu zituenak ez ziren hainbeste tomate eta andreak pobre itxura zeukan.

Turistak pentsatu zuen, berak tomate guztiak erosiko balizkio, andreak

denbora gehiago edukiko lukeela beste gauza batzuk egiteko eta diru gehiago irabazteko. Pentsatu eta egin.

Goiz-goiz andrearengana joan zen eta tomate guztiak eskatu zizkion. Andrea harrিতa geratu zen eta ezetz esan zion. Turista lur jota geratu zen, baina Mirenek berriro ezetz esan zion, behar zuena bakarrik salduko ziola.

Turistak Mireni galdetu zion zer-gatik ezin zituen denak saldu. Mirenek zera esan zion: "Ez, zuri denak saltzen badizkizut nire lagunak, hori ikusi eta, ez



didate agurrik ere egingo eta nire bezero-ak ere tomaterik gabe geratuko dira".

Gaintza eta lagunak



NEKANE GOIKOETXEA

Geolokalizazioak

Duela 10 urte soilik pentsa ezina zen hedadura lortu dute mobilek gure artean. Ohitura berriak ekarri dituzte gailuek. Orain etengabe negoziatu behar dugu elkarbizitza, noiz eta nola erabili patrikako protesia: afalorduetako ohiko paisajea bihurtu da waxaparen pipipi mezua, edozein lan-bileretan hizketa presentzial eta birtualaren arteko aldi bereko arreta partekatzen dugu eta etengabeko harremana izan dezakegu hiruzpalau taldeetako lagun, lankide zein familiakoekin. Hainbatek birus zein higiene ohiturez hitz egingen digute IKTez jarduterakotan. Agian abiadurak ez digu lagatzen gizarte aldaketa hauek guztiak distantziaz begiratzen.

Nago areagotu egingo dela oraindik gehiago harremantzeko abiadura hori. Iraileko aste bukaera batean lagun batek kontatu didanak harritu egin nau zeharo. Laguna kapaza da, gaya alegia, eta hiriko ambienteko lekuetatik kanpo zaila da bere maitale izan litezkeen pertsonak identifikatzea gau giro hetero batean. Kontatu didanez, telefonoko geolokalizazioak erabiltzen dituzte goxolagun aukerak aurkitzeko inguruan. Aurkitua izan nahi duenak bere datuak sartzen ditu aplikazio batean. Honela, zu zauden lekuan eskura daukazun aukerak agertzen dira zure mobilean. Lagungaiaren sare sozialeko profila erakargarria bada harremanetan jarriko da berarekin mezu bidez. Hortik aurreragoak

aurrez aurrekoak izan ohi dira.

Zalantzarik gabe harremantzeko eredu berriak ditugu gure artean, hiri inguruetan batez ere. Lagunaren pena da ambienteko leku klasikoak, lan handiz "normalizatu" ahal izan direnak gizarte heterozentrista batean, jendez hustutzen ari direla.

Gay gazteenek halako lekuetara joateari utzi diote, esku-eskura baitituzte lagunak geolokalizatzeo aukerak nahieran.

Azken aldian gogoetan nabil nire lanbideagatik (irakasle) gertu ditudan gazteek nola bizi dituzten aurreko belaunaldietako era guztietako militantziak: euskal nortasuna, feminismoa, gay/les mugimendua, klase borroka, abertzaletasuna e.a. Deseroso sumatu izan ditut horrelako gaien aurrean, edo gai horiek azaleratzeko ditugun moldeen aurrean. Nola ez naizen erantzun errazen zalea, zer pentsatua ematen dit eta galdera da geolokalizatutako belaunaldi batek zer egin nahi duen era guztietako "ambiente" lekuekin, izan euskara elkarre, emakume txoko, festa, manifa edo sigla ezberdineko batzokiekin?

Euskal jaian bizi izan dugun revivalak utzi dizkigu argazki politak. Ez zait zatarrena iruditzen Gure Kaiko kide diren gazteek egin duten ekarpena: "ambiente" lekuan egin dute dantza geolokalizatutako mobilekin argazkiak igo dituzten bitartean. Hor bada zer galdetua!



Iraganeko Euskal Jaia gogoan hartuta ospatu dugu aurtengo hitzordua

Deban lehenengo Euskal Jaia ospatu zenetik 50 urte bete dira aurtengoa. Eta irailaren 27an ospatu berri dugun aro berriko XVII. hitzorduaren bueltan egitarau mardula antolatu da, elkarlanean.

Bi orrialde hauetan jaso du *Berriketan*-ek 2014ko Euskal Jaia bezperetan herrian ospatutako ekimenen gainbegiratu xumea. Eta irailaren 27ak utzitako irudiak bilduma txiki batean eskaintzen ditugu ondorengo bi orrietan.

Udalak Debako Euskal Jaia historia kontatzen duen liburuxka bat argitaratu du eskolako umei banatzeko, era politean eta errazean historiaren berri eduki dezaten. Eta herritarrentzat ere ale kopuru bat kaleratu du: udaletxean bertan, Turismo Bulegoan eta Ostolaza udal liburutegian eskuratu daiteke, euro baten truke -www.deba.net atarian ere deskargatu daiteke-.

Liburuxka horrek, ordea, ez du aurtengoa bizi izandakoaren testigantza edo lekukotzarik jasotzen, aurtengo Euskal Jaia ospatu baino lehen aurkeztu zelako argitalpena. Eta, hori horrela izanda, *Berriketan* aldizkariko lan taldeak aurtengo irailaren 27ko kronika txiki bat egiteko erronkari heldu nahi izan dio.

Irailaren 27a, aro berriko XVII.a

Eguraldi aparta izan genuen egun osoan zehar. Goizean goiz hasi ziren iristen dantzariak Debara: autobusez, trenez, autoz... Euskal Herriko 300 bat dantzari guztira; orain 50 urte Debako Euskal Jaian dantzan aritutako taldeetako kideak, hain zuzen ere.

Herriko elkarte gastronomikoek prestatutako hamaiketakoarekin egin zitzaizen ongi-etorria dantzari, Foruen Plazan. Eta eguerdian herriko txoko

ezberdinetan talde horien dantzak ikusteko aukera izan genuen. 13:30ean Zumardiko kioskoan burututako alarde hunkigarria izan zen, dena den, irailaren 27ko ospakizuna markatu zuen hitzordu



Esker onez, garai hartako jendeari omenaldi xumea egin nahi izan zaie aurtengoa

nagusia. Bertan elkartu ziren dantzari guzti-guztiak, baita ikusle ugari ere.

Dantzariak eta Oargui taldea bera izan ziren hitzordu horretako protagonista nagusiak. Ezin daiteke Debako Euskal Jaia Oargui gabe ulertu, talde hau

izan baitzen orain 50 urteko jaiak antolatu eta bultzatu zituen. Festa haietan herri osoa inplikatu zela kontuan hartuta, antolatzaile, diru-biltzaile, jostun, sukaldari, laguntzaile... lanetan aritu ziren guzti-guztiei esker ona adierazi nahi izan zitzaizen zumardiko ekitaldian.

Besteak beste, hasierako Euskal Jaia haietan parte hartu zuten dantza taldeetako ordezkari oroigarria ere eman zieten egungo udal ordezkariak. Hitzorduko unerik bereziena, akaso, Luis Etxaburu *Latxanbre* dantzariak eskaini zuen. 1964an Oargui antolatutako lehenengo Euskal Jaia hartan Deban izan zen *Latxanbre*; eta 50 urte geroago ere bera aritu zen dantzari kioskoan. Oarguiokoei bere garaian egin zuten ahalegin ikaragarri hura dantza zirrargarria eskainiz eskertu nahi izan ziren ondarrutarrak.

Dantzarien alardeaz gain, aurtengo Euskal Jaia azken urteotako egitarauari ere eutsi dio. Hemen zenbait datu:

Laugarren marmitako lehiaketa antolatu zen -zortzi kuadrilla aritu ziren lehian Simon Berasaluce plazan-.

300 bat dantzari estalitako pasealekuan bazkaria egin zuten, baina Aldats pilotalekuan burutu zen aurtengo bazkari herrikoa. 600 bat lagun bildu ziren bertan, Zuhatzeta Euskara Elkarteak hainbat bolondresen laguntzarekin antolatutako bazkarian.

Arratsalde partean (eta gauean ere bai), Zesuma taldeak erromeria eskaini zuen Foruen Plazan, eta jendetza izugarria bildu zen bertan.

50 urte igaro ondoren, eta garaia zeharo ezberdinak badira ere, auzolanean antolatutako jai herrikoiak bizirik dirauela ikusi da aurtengoa ere. Hala jarrai dezala beste 50 bat urtez gutxienez!

TXINDURRI ITURRI
NEKAZALTURISMOA
SAGARDOTEGIA

943 199 389 / 699 684 490 • Mardari 12. 20829 ITZIAR-DEBA
www.txindurri.com

64ko argazki bat Agirre jauregian



1964ko maiatzaren 17an Antón Allikak ateratako argazki handi bat zintzilikatu dute Agirre jauregian. Irailaren 23an ohorezko agurra dantzatu zuen Gure Kaiko kide batek irudiaren aurrean, eta ekimen horrekin abiatu zen aurtengo Euskal Jaiaren bueltan antolatutako egitaraua.

Kartelen erakusketa



Agirre jauregiko erakusketa aretoan Euskal Jaietako kartelak egon dira ikusgai, irailaren 23tik 28ra bitartean. Bertan, 1964an Oargui taldeak Euskal Jairako prestatu zuen pankarta originala ikusteko aukera izan



dute herritarrek, garaiko beste zenbait elementu eta oroigarriekin batera. Azken 16 urteotan aro berriko Euskal Jaiak iragartzeko erabili diren kartel guztiak ere erakusketan bildu zituzten -Zuhatza Euskara Elkarteak antolatutako kartel lehiaketetan aukeratutakoak, alegia-. 60. hamarkadako hainbat argazkiren proiektzio bat ikusteko aukera ere izan zen.

Mahai-ingurua, lehengo eta gaur egungo Debako Euskal Jaiak

Agirre jauregiko Ispiluen Gela bete-bete egon zen irailaren 25eko hitzorduan. "Debako Euskal Jaiak" izenburupean, Euskal Jaietako belaunaldi edo hamarkada ezberdinetako protagonista batzuk mahai baten bueltan jarri ziren, beraien bizipen eta esperientziatik jai honen berri eman eta orduko zein gaurko istorioak kontatzeko.

Nekane Goikoetxeak gidatu zuen mahai-ingurua, eta aldamenean izan zituen Itziar Lecea, Itziar Aizpurua, Juan Ignacio Aizpurua, Ina Oiartzabal, Goizane Aizpurua eta Mattin Urbieta. Debako Euskal Jaien inguruko dokumentalaren aurrerapen bat ikusteko aukera izan zuten bertaratutakoek; zer izan ziren, zer suposatu zuten, nola antolatzen ziren... eta, gaur egun Euskal Jaiak nola egiten den kontatu zuten parte-hartzaileek. Makina bat oroitzen, bizipen, anekdota eta bitxikeria entzun genituen beraien ahotan.



Jokin Lasaren kontzertua, eliza atarian

Irailaren 26ko gauean (ostirala), euskal musikaz gozatzeko aukera izan zen Iturri Ondoan, eliza atarian. Jokin Lasak "Zortziko txiki bat" diskoa aurkeztu zuen bertan. Berarekin aritu ziren Kaki Arkarazo eta Debako beste zenbait musikari

ere: Gorka Agirrezabala, Andima Egaña eta Miquel Saumell.

Txiki gelditu zen eliza ataria: aulki guzti-guztiak bete ziren eta jende ugari zutik gozatu behar izan zuen emanaldiaz. Xarma berezia eman zion argi jokoak ere kontzertuari.





EUSKAL JAIA 2014, IRUDITAN





Kartzeletatik egindako hamar ihesaldi edota ihesaldi-saiakera kontatu ditu Josu Martinezek

Tene Mujika bekaren eskutik idatzi du “Tunelak, izarak, mozorroak eta bafleak” liburua

Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako Tene Mujika bekaren fruitua da Josu Martinezen (Bilbo, 1986) liburua. “Tunelak, izarak, mozorroak eta bafleak” izenburupean, idazleak azken 50 urteetan euskal gatazkarekin loturik egon diren espetxeetako ihesaldi eta ihes-ahaleginetako batzuk kontatzen dizkigu; hamar kronika dira guztira.

Ikus-entzuneko komunikazio eta Antropologia ikasketak egina da Josu Martinez eta hamaika lan burutu ditu azken urteetan idazle, musikari edo zinemagile bezala. Azken esparru horretan, Euskal Herriko historia hurbilean kokatutako hiru dokumental burutu ditu orain arte. “Itsasoaren alaba” (2009), “Sagarren denbora” (2010) eta “Prohibido recordar” (2010); hirurak estreinatu ziren Donostiako Zinemaldian. Bere azken lana “Barrura begiratzeko leihoak” (2012) dokumental kolektiboa izan zen; euskal presoek buruzkoa.

Agirre jauregian irailaren 24an egindako aurkezpenean, Martinezek aipatu zuen espetxeetako ihesaldiren baten berri izaten zuen bakoitzean pentsatzen zuela horiek film edo liburu bat osatzeko moduko istorioak zirela. “Ihesaldietako protagonistak ezagutzen ez dituzun arren, sinpatiaz begiratzeko diezu, bihurrikeria puntu bat ikusten diezulako halako saiakerei”. Gaiari heltzeko aukera “Barrura begiratzeko leihoak” dokumentala osatzeko dokumentazio prozesuak eman zion idazleari. Hala hasi zen, apurka-apurka, ezagunak zitzaizkion kasuen artean hautaketa egiten eta azkenean hamar bildu ditu liburuan: 1969an Basaurin burututakoa, Jose Mari Sagardui *Gatza*-ren saiakera, ETako kideek kontsul alemana bahituta egindakoa, Segoviakoa (iheslari kataluniarren ikuspegitik), Bernardo Aizpitarte *Kabra* azpeitiarrak Beasaingo ospitaleatik egindakoa...

Liburuaren epilogoia Joseba Sarrionandiak egin du, eta Martinezek azaldu zuenaren arabera, “agian nire testuari



falta zaion sakontasuna ematen dio ihesei eta kartzelari buruz Sarrionandiak egin duen testu mamitsuak”.

Agirre jauregian egindako aurkezpenean, Josu Martinez bera, Elkar argitaletxeke Xabier Mendiguren editorea, M^a Fran Agirregabiria Kultura zinegotzia eta Jokin Urain idazle eta preso ohia bildu ziren.

Bekaren IX. deialdia abian dago

Abian dago jadanik Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako Tene Mujika sariaren deialdi berria, 6.000 euroko diru-laguntza emango duena. Aurtengo deialdiak aldaketa bat dakar. Beka sistemarekin jarraituko da, baina gai konkretu baten inguruan aritu beharko dute parte-hartzaileek; herriko memoria historikoa berreskuratzeko ahalegina egin nahi dute, Debaren historian garrantzia handia izan duen gai zehatz honetan zentratuz: Mendata puntan eraiki asmo zen Zentral Nuklearraren proiektua eta haren inguruko gorabeherak. Proiektuak aurkezteko epea abenduaren 12an bukatuko da. Oinarriak www.deba.net-en kontsulta daitezke.

Praileaitz I kobazuloko bigarren sarrera aurkitu dute, hipotesiak betez

Uztailaren 25ean amaitu zituzten aurtengo Praileaitz I haitzuloko indusketak, eta garrantzizko aurkikuntza bat egin dute bertan: haitzuloak garai batean zuen beste sarrera bat aurkitu dute bertan lanean aritu diren arkeologoek. Hala, leizeak gutxienez bi sarrera zituela egiaztatu dute, eta Xabier Peñalver Aranzadiko kideak baieztatu zuen, Donostian egindako agerraldi batean, orain arte ezagutzen zena ez zela sarrera nagusia.

Haitzuloaren barnetik kanpora egin dute aurkikuntza, eta horrek Debako leizea uste baino konplexuagoa dela erakusten du. Izan ere, uste dute handia izan daitekeela sarrera aurkitu berria. Bestalde, ikuspegi arkeologikotik, aukera handia ematen du atondoaren eskuinean dagoen galeria berrian aurkitutako material zaharren jatorriko aztarnategia aurkitzeko. Ondoriozta daiteke, beraz, berriki aurkitutako sarreraren zegoela jatorrizko aztarnategia, sarrera aldean biltzen baitziren Paleolitoko gizakiak, eta ez kobazuloen barne-barnean. Modu horretan, beste aukera bat zabaltzen da orain, ongi kontserbatuta badago, jatorrizko aztarnategia aurkitzeko; bai Goi Paleolitoko (duela 10.000 eta 35.000 urte), bai Moustier aldikoa (duela 45.000 eta 180.000 urte).

Aurkitutakoaren garrantzia kontuan harturik, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaera bat egin dio Eusko Jaurlaritzari: Praileaitzen inguruko babes eremua zabal dezala indusketa behar den moduan egin ahal izateko (50 metroko



babesa 100 metrora pasatuta, zehazki), eta lehenets dezala ondarearen garrantzia beste kontsiderazio eta interes ekonomikoen aurretik. Aldundiak eskatu zuen, lehen ere, babesa 100 metrora zabal dadila eta Kosta Legeak babesten duena, Kultura dekretu baten bidez ere babes dezatela.

Foru Aldundiak nabarmendu du kobazuloa babesteko bere esku dagoena egiten jarraituko duela, horretarako neurri zehatzak iragarrita.



BERRIKETAN GAZTEA

Euskal Jai berezia aurtengoa

Urtemuga ospatzeko ekimenak irailaren 23an abiatu ziren, baina larunbatean, 27an, izan zen egunik handiena

50 urte pasa dira Deban lehenengo Euskal Jaia egin zenetik, Frankismo garaian. Hori kontuan hartuta, aurtengo hitzordua iragartzeko erabili den kartelak lehenengo Euskal Jai hartako irudia du oinarrian. Udalak urtemuga hau ospatu nahian ekintza ezberdinak antolatu ditu irailean zehar. Ekimen horiek irailaren 23an martxan jarri eta larunbatean (hilaren 27an) bukatu ziren.

Era berean, Euskal Jaiaren historia azaltzen duen liburuxka bat argitaratu da, umeen artean zabaltzeko; eskoletan banatu dute liburuxka hori, gazteek era erraz eta polit batean ulertu dezaten historia. Bestelako herri-tarrentzat ere eskuragarri dago argitalpena, Turismo Bulegoan, liburutegian eta herriko liburu-dendetan.


Aldizkari honetako beste hainbat orrialdetan azaldu bezala, **irailaren 23an** abiatu zen aurtengo egitarau berezia. Musika Eskolan 1964-65eko Euskal Jaiaren argazki bat zintzilikatu zen eta, bertan, Gure Kai dantza taldeak agurra dantzatu zuen. Gero, Euskal Jaietako kartel erakustaldia inauguratu zen Agirre jauregian (irekita egon zen hainbat egunez).

Irailaren 24an euskal literatura izan zen protagonista herrian; eta, **hilaren 25ean**, Euskal Jaietako hamarkada edo belaunaldi ezberdinetako protagonista batzuek beren bizipen eta esperientziatik jai honen berri eman zuten mahai-inguru batean.

Irailaren 26ko gauean, plaza zaharrean, euskal musikarekin gozatzeko aukera izan genuen; Jokin Lasak "Zortziko txiki bat" izeneko kontzertu bat eskaini zuen (ikus hurrengo orrialderako prestatu dugun elkarrizketa).

Egun handia **irailaren 27a** izan genuen. 13:30ean, zumardiko kioskoan, dantza talde guztiei ongi-etorria egin zitzaion (guztira 13 talde izan ziren). Alarde polita izan zen!

Besteak beste, 15:00etan, herri bazkaria egin zen Aldats pilotalekuan. Hori baino lehen, urtero bezala, marmitako txapelketa ere izan zen. Ospakizuneko azken orduak Zesuma taldeak alaitu zituen; arratsaldean ez ezik, gauean ere erromeria egon zen Foruen plazan.



Debako Euskal Jaiaren historia kontatzen duen liburuxkaren azala, Alikak utzitako irudiarekin osatua.

Mendata BHI-ko Prentsa Tailerlean Sortua.
2014ko urria



ELKA RRIZ KETA

JOKIN LASA:

“Duela bizpahiru urte ikusi nuen disko bat grabatzeko materiala neukala”



Ikasturte berriko lehenbiziko elkarrizketa gure institutuko irakasle Jokin Lasari egin diogu. Aproposa iruditu zaigu bera elkarrizketatzea, “Zortziko Txiki Bat” izeneko diskoa kaleratu baitzuen duela zenbait hilabete. Gainera, diskoa aurkezteko kontzertua ere eskaini berri du herrian, plaza zaharrean.

Nola hasi zinen musika munduaz interesatzen?

Hamalau-hamabost urterekin gutxi gorabehera. Garai hartako euskarazko kantak entzuten nituen (Benito Lertxundi, Xabier Lete...).

Nola erabaki zenuen “Zortziko Txiki Bat” izeneko diskoa kaleratzea?

Duela bizpahiru urte ikusi nuen disko bat grabatzeko materiala neukala eta urteetan zehar idatzita neuzkan zenbait kanta bildu eta nire lagun musikagile batek lagunduta atera nuen diskoa.

Zein instrumentu jotzen duzu? Noiztik?

Aspaldi txistuarekin hasi nintzen, baina hamasei eta hemezortzi urte bitartean gitarrarekin hasi nintzen.

Txikitatik izan al duzu musikarekiko zaletasuna? Zenbat urterekin hasi zinen mundu horrekiko interesa agertzen?

Gaztetatik daukat zaletasuna; hamalau urte ingururkin hasi nintzen interesatzen.

Musika eskolaren batean ikasi duzu edo zure kabuz?

Hasieran solfeo ikasi nuen, oinarrizkoena, eta hor txistua jotzen ikasi nuen. Eta gitarra jotzen nire kabuz ikasi nuen.

Ba al daukazu beste disko bat ateratzeko intentziorik?

Oraingoz ez dakit, baina nahi izanez gero materiala badaukat. Diskoak egitea eta saltzea garesti samar irteten dela ere kontuan hartu behar da.

UDAKO OPORRAK ETA IKASTURTE HASIERA

Udako oporrak eta ikasturtearen hasiera izan ditugu mintzagai oraingo honetan. Hona hemen ikasleei egin dizkiegun galderak:

- 1.- Zer moduz pasatu duzu uda?
- 2.- Bidaiatu al duzu? Nora?
- 3.- Udalekuetan egon zara? Eta zer moduz pasa duzu?
- 4.- San Roke festetan hemen egon al zara? Ondo pasa duzu?
- 5.- Gogorra egin al zaizu eskolara itzultzea?
- 6.- Ikasturte berri honetan, zein ikasgai gustatzen zaizu gehien?



Pablo Ron:

- 1.- Oso ondo.
- 2.- Bai, Ezkaraira.
- 3.- Bai, primeran.
- 4.- Bai, ondo.
- 5.- Pixka bat.
- 6.- Teknologia dut gustukoen.



Elene Turrillas:

- 1.- Oso ondo.
- 2.- Bai, Galiziara.
- 3.- Bai, oso ondo.
- 4.- Bai, primeran.
- 5.- Bai.
- 6.- Teknologia.



Irene Duran:

- 1.- Oso ondo.
- 2.- Bai, Bartzelonara, Edinburgora eta Murciaara joan naiz.
- 3.- Ez.
- 4.- Bai, ondo.
- 5.- Ez.
- 6.- Plastika.



Ahlam Belmokadden:

- 1.- Ondo.
- 2.- Ez.
- 3.- Ez.
- 4.- Bai, primeran.
- 5.- Bai, oso gogorra.
- 6.- Artisautza.



Martin Hernandez:

- 1.- Primeran.
- 2.- Bai, Ingalaterrara.
- 3.- Ez.
- 4.- Ez.
- 5.- Ez.
- 6.- Teknologia eta Heziketa Fisikoa.



Maria Gonzalez:

- 1.- Oso ondo.
- 2.- Bai, Ingalaterrara eta Galiziara.
- 3.- Ez.
- 4.- Bai, primeran.
- 5.- Bai, oso.
- 6.- Matematika.




Miren Aizpurua:

- 1.- Ondo, baina labur.
- 2.- Bai, Irlandara.
- 3.- Ez.
- 4.- Bai, primeran.
- 5.- Oraingoz ez.
- 6.- Erljioa.



Nora Sagarna:

- 1.- Oso ondo.
- 2.- Bai, Madrilera.
- 3.- Ez.
- 4.- Bai, oso ondo.
- 5.- Bai.
- 6.- Erljioa.




DenBord-pasa

GURUTZEGRAMA

Honako gurutzegrama honetan, animalien izenak kokatu beharko dituzu:

- BEHIA
- ANTXOA
- ELTXOA
- GORILA
- LEHOIA
- UNTXIA
- ARRANOA
- DORTOKA
- IZURDEA
- OLAGARROA
- AMUARRAINA
- KARRAMARROA



LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala

The North Face Ultratrail du Montblanc

Abuztuaren 29an Chamonix Ultratrail munduaren elkargune izan zen. Ultra World Tour-aren baitan “proba erregina, bereziena eta izen handienekoa” den horretan lehia aritu zen Igon Mancisidor debarra, eta 88. postuan sailkatu zen (Zorionak!!). Lasterketan bizi izandakoaren kronika egin dio *Berriketan*-i.

Lasterketa honetan parte hartzeko, aurreko 2 urteetan distantzia luzeko 2 edo 3 lasterketa (80-160 km) bukatuak izan behar dituzu. Ondoren, urtarilaren hasieran zozketa bat izaten da mundu osoko kirolarien artean; 2.300 korrikalarik izaten dute bertan parte hartzeko “zortea”.

Chamonix da probaren hasiera eta helmuga; tartean 168 km eta hainbat mendi igo eta jaitsi behar, 19.200 metroko desnibel metatua osatuz. 48 orduko muga dago Frantzia, Italia eta Suitza zeharkatzen dituen abentura hau osatzeko.

77 naziotako korrikalariak izan ziren, erdiak frantziarrak, atzetik Espainia, Italia, Ingalaterra, Japonia eta abar.

Proba honek dituen fama eta antolakuntza bikainak tentaturik izena eman nuen zozketan, urtarilaren hasieran plaza bat tokatu zitzaidan, eta orduantxe hasi nuen prestaketa.

Entrenamenduaren oinarria egunero Itziarko lantokira korrika joatea izan da, asteburuetan saio luzeagoak eginez. Orotara 35 astetan 2.435 km (asteko batezbestekoa: 70 km) izan dira korrika mendian, 86.436 metro aldapa gora igoaz. Bolumen txikia maila honetako erronka ondo egiteko, arriskatzeko; hortaz, helburua lasai

hartu eta zuhurtziaz korrika egitea izan da asmoa, indarrak ondo neurtu, ugari jan eta edanez. Oso garrantzitsua izan da buruz indartsu joatea, motibatuta eta aurreko hilabete eta erdian lasterketa gogorrik ez izatea.



Inguru menditsu horretan ezinbesteko materiala eramatera behartuta gaude antolakuntzaren arauetara men eginez, bidean kontrolak egiten dituzte horretarako. Motxila batean emandakoak: janari edana eta litro bat ur, galtza luzeak eta euritako beste pare bat, kamiseta manga luzea, goretex jaka, eskularru iragazkaitzak, txapela edo buff-a, txilibitua, emergentzi manta, bi frontal (eta hauen 2 pila joko ordezkoak), zinta elastikoa edo esparadrappua, karneta, 20 euro eta mugikorra.

Irteera: Chamonix (arratseko 17:30). Bi ordu daramatzat lurrean eserita jendetzaren artean, gero megafoniatik esaten dute lehen 200 dortsalek irteera aurrean zona “vip” moduko bat dutela; 174 dortsala naiz, korrikalari faboritoen ondoan jarri naiz hasierako jende uholdea ekiditeko. Arratsaldeko 17:30 eta jende asko kaleetan, Vangelis-en abesti motibagarri batekin irteera aurreko minutuak hunkigarriak dira. Galdera bat buruan, bukatuko ote dut? Momentuz euria hasi du...

Saint Gervais-km 21. Ikaragarrizko jendetza, animoak, musika, giro aparta benetan. Lehen hornidura puntua eta hainbeste janari dago zer hartu ez dakidala! Bustita noa eta zerbait epela onena, te beroa, fideo sopa, bizkotxo eta gailetak. Hemendik aurrera iluntasuna nagusitzen doa, gaua hurbilduz.

Giro bustia eta kamiseta blai, Goretex jaka jantzi dut energia gutxiago xahutzeko.

Col du Bonhomme -km 44,2- 2439 m. Igoeraren azken zatian izarrak agertu dira, makilak astinduz gora iritsi gara eta fresko dago, eskularruak jantzi eta behera ziztuan.

Les Chapieux-km 49,4. Jaitsiera azkarraren ostean hornidura postu bikaina. Kamiseta aldatzea erabaki dut eta manga luzea jantzi, lepoan zapia eta eskularruak. Gaua luze joango da eta datozen mendi gailurretan lehor joatea atsegingarriagoa izango da. Jateko:

sopa beroa, tea, gazta pixka bat ogiarekin, gailetak, bizkotxoak; menu hau errepikatuko dut ia lasterketa osoan eta oso ondo izan ditut tripak.

Courmayeur-km 77. Zeruan argitasuna ageri da, badator eguzkia. Hainbeste orduz frontaleko argiari begira, gogoa izaten da egun argia ikusteko. Erdibideko atsedean gune nagusia, hemen deskantsurako lekua dago, lo egiteko, dutsak, makarroiak, lagun edo entrenatzailearen asistentzia. Aurretik antolakuntzari emandako gure zakua daukagu (janaria, arropa...). Norberak ikusten du gune hauetan zenbat denbora egin: adibidez, aurreko postuetan doazenek 5-15 minutu erabiliko dituzte; nire kasuan, arropa aldatu, mahaian lasai jan, luzaketa batzuk egin... 30 min. Oraindik asko falta da eta bertan luzaro egonez gero, bigarren gauean gehiago sufritu daiteke korrika.

Bertone-Bonatti babes etxeak-km 82-90. Babes etxe historikoak, 2.000 metroko altueran pista politetan korrika eginez gozatu dut lehen orduetan. Ezkerrera begiratzu Montblanc eta inguruko menditzarrak, glaziarrak, paisaia ikusgarria mendizaleentzat. Bukaeran Arnubako bailara zulora 5 km behera.

Grand Col de Ferret-km 99-2525 m. Makilak erabiliz

igoera gogorra, hauspoa beteta, geldialdi txikiren bat arnasa hartu eta ura edateko. Gaina harrapatu eta 20 km behera. Ni gusurago noa gorantz, beherantz oinek gehiago sufrizten dutelako.

Champex Lakua-km 122,4.

Praz de Fort-etik igoera gain baten ostean hornidura puntuan gaude. Betikoa jan dut, sabeleko arazorik ez, eta txakalaldi handirik ere ez. Parisko gazte batek esan dit orain datorrela zatirik gogaikarriena, eta baita etorri ere, 2000 metro pasako 3 igoera eta jaitsiera, iztarrei errematea emateko bikaina.

Vallorcine-km 149,2. Bovine eta Catogne pasa ostean hornidura postua. Bertan, Debako lagunak: Arkaitz Astiazaran, Mariaje Castro, Carli eta hauen alabak. Indarra eman didate animoekin, benetan eskertzekoa. Azken mendiaren zati bat Arkaitz eta Mariajerekin egin nuen, indartsu eta helmuga hurre-hurre!

La Flegere-km 160. Azken hornidura. Ura edan eta ziztuan behera, gaua da, baso bide batean behera, sustriak, harriak, erreka txikiak, bide malkartsua... zaila korrika jaisteko!

Chamonix-km 168. Helmugarako azken metroak, alai, pozik, bideoetan hainbestetan ikusitako zatia: jendea afaltzen, garagardo bat edaten, txaloak, umeak eskuak luzatzen, hunkigarria da. Gaueko 22:40an iritsi naiz, 29 ordu eta 12 minutuko saioa eginda, 88. postuan, oso gustura. Helmugan ez dut familia, baina bihotzean daramatzat. Etxean familia eta lagunak WhatsApp-ez ibili dira jarraipena egiten, argazkiak, animoak, ze polita!

Bukatu ostean dardarka hasi naiz, hotza, ahuldadea, logura, motxilan dudak arropa guztia jantzi eta dutxa beroaren bila abiatu naiz. Kiroldegira iristean lurruna eta ur beroa, preziorik ez duen plazer momentua.

Halako proba bereziek bizipoza ematen dute urte osorako, goizean jaiki eta entrenatzeko aitzakia, ilusioa. Bakoitzak ahal duen heinean jar ditzala erronka txikiak eta berauek lortzen saiatu dadila. Gora kirola!

Igon Mancisidor

Javi Zulaikak hirugarren aldiz irabazi du Kontxako Bandera

Bermeoko Urdaibai arraunlari taldeak nagusitasun osoz irabazi zuen irailean jokaturako Kontxako Bandera, bi txandetan sekulako erakustaldiak eginez eta errekor berria ezarriz. Hondarribia 5 segundotara utzi zuen, Kaiku 10era eta Orío (lugarren) 19ra ohorezko txandan.

Urdaibaik errekor berria ezarri du Kontxako banderan bi egunetako denborak kontuan hartuta. Astebete lehenago sekulako erakustaldia egin ondoren (19 minutu eta 3 segundo), irailaren 14ko azken proban hobetu egin zuten denbora (19.01). Beraz, 38.04 da Urdaibaik ezarri duen errekor berria.

Javi Zulaika debarra tripulazio irabazlearekin aritu zen lehian oraingoan ere. Aurtengoa hamaikagarren denboraldia izan du Urdaibai taldean, eta tripulazioko kiderik beteranoena da. Irailean lortutako garaipenarekin, dagoeneko Kontxako hiru Bandera lortuta ditu kirolariak.



Aritz Ruiz de la Torre, bigarren postuan Zumaiako Zakila Biran

Zakila Bira herri lasterketa jokatu zuten urriaren 4an Zumaian. Guztira 401 korrikalari aritu ziren lehian, hoge kilometroko proban, eta Aritz Ruiz de la Torre sailkatu zen bigarren postuan, 1:09:12ko denborarekin. Lasterketa Eduardo de Miguel Barbero eibartarrak irabazi zuen, Aritz Ruiz de la Torreri 35 segundoko tartea aterata. Emakumezkoen artean, Itxaso Leunda nagusitu zen (Hernalde), 1:20:19ko denborarekin.

Burdin Kurutz eta Luzaro ikastetxeak antolatutako mendi irteerak



Irailaren 21eko irteeran ateratako irudia.

Aurten ere, Burdin Kurutz Mendi Taldeak eta Luzaro ikastetxeak 2014-2015 ikasturterako ikasleen Mendi Irteera Egutegia eskaini dute. Irailaren 21ean eman zieten hasiera mendi ibilbideei Ondarru-Mutriku-Deba goiz pasarekin.

Hilabetero inguruko mendi eta ingurune ezberdinak ezagutzeko aukera izango dute 3. mailatik gorako ikasleek, beraiei zuzenduta baitaude irteera hauek. Hala ere, guraso edo laguntzaileekin, txikiagoek ere parte hartu dezakete.

Umeei zuzenduak izanik, ibilaldi errazak eta erosoak dira. Irteera puntua gehienetan estalitako pasealekua izango da (autobus geltokia) eta irteera ordua, berriz, goizeko 8.30. Gainera, irteera asko egun osokoak izango dira, arratsaldeko 4etan edo 5etan itzuliz herrira; nahiz eta egun erdikoak ere badiren.

Mendi irteera hauek ikasleentzat doan izango dira, Kirol Eskolarraren barruan baitaude. Bazkideek, nagusiek eta

gurasoek, ordea, ordaindu egin beharko dute.

Maiatzaren azken asteburuan, zenbait baldintza betetzen badira, bi eguneko irteera ere antolatuko da eta ikasturteko azken irteeran (ANDUTZ EGUNEAN) parte hartu duten ikasleen artean opari banaketa egingo da.

Hemendik aurrera egingo diren irteeren egutegia hauxe da:

*Azaroak 23: Aiako Harriei Itzulia (Aritxulegitik).

*Urtarrilak 11: Aralar aldera.

*Otsailak 15: Urbia aldera.

*Martxoak 8: Ibilaldi neurtua (goiz pasa).

*Apirilak 19: Ibilaldia kanboarrekin (goiz pasa).

*Maiatzak 30-31: Bi eguneko irteera.

*Ekainak 14: Andutz Eguna.


Besterik gabe, Burdin Kurutz M. T. eta Luzaro ikastetxeak ibilaldi hauetan parte hartzera gonbidatzen ditu ikasle, guraso, lagun eta bazkide guztiak.

Geoparkeak "Txartel Berdea" lortu du

Euskal Kostaldeko Geoparkeak ebaluaketa gainditu du. "Txartel Berdea" eskuratu du eta geoparke izendapenari eutsiko dio beste lau urtez behintzat. Honek esan nahi du UNESCOren babesa daukan Munduko Geoparkeen Sareko kide izaten jarraituko duela. Ebaluatzaileek egindako txostenak Geoparkeak eta erakunde eta entitate publiko eta pribatu ezberdinek elkarlanean egindako esfortzua nabarmentzen du, proiektuaren arrakasta ahalbidetu duena. Azterketaren emaitza (aho batez hartutako erabakia) Alemaniako Harz Geoparkean irailean burututako Koordinazio Batzordean eman zuten jakitera.

Mural berria Debako sarreran

Miramarreko eraikineko fatxada txukundu nahi izan du Debako Udalak. Zintzilik zegoen kableatu guztia lur azpiratu eta bertako farolak pintatzeaz gain, eraikinean mural berria egitea erabaki zuen, jabeak diren bizilagunen baimenarekin. Lan hori burutzeko, Artefactory, ekintzailez osatutako enpresa baten zerbitzua kontratatu zuen. Debako hondartzan surfean dabilen emakume bat irudikatu dute.



“Herriak garbirik, Zero Zabor Bidea Debarrenan” proiektu pilotua dakar Debanaturak

“Herriak garbirik, Zero Zabor Bidea Debarrenan” lelopean, Debanatura elkarteak proiektu pilotu bat abiatu du, eskualdeko ikastetxeetan, tokiko komertzioaren jardueran eta herritarrengan oro har hondakinen prebentzioaren gaineko kontzientzia-zioa areagotzeko helburuarekin. Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza du proiektu honek, eta ekimen ezberdinez osatuta dago.

Batetik, “Eskolak garbirik, Zero Zabor Bidea” izenburupean, lehenengo proba pilotu bezala, Debako Luzaro eta Mendata ikastetxeetan, jangelan sortutako materia organikoa bertan kudeatzeko konpostajerako sistema bat ezartzea proposatu du Debanaturak; “eskolako konpostajerako gunea sortzea”, alegia. Guztira, lauzapabost geletako 120 ikasleri egingo litzaieke ekimenean parte hartzeko deialdia. Era berean, ikastetxeetan Zero Zabor Bideari lotutako tailerrak ere egin nahi ditu elkarteak. Jakinarazi duenez, hausnarketarako eta ikasitako guztia barneratzeko “Hondakinen bidaia” egingo dute ikasleek, “sortzen ditugun hondaki-

nen arrastoak jarraitzeko, eskolatik autobusez irteera bat antolatuz”.

Bestetik, eskolaz kanpo etxeko hondakinen prebentziorako zenbait ekimen bultzatu nahi ditu Debanaturak, betiere kontsumo jasangarria eta etxean sortzen ditugun hondakinak murrizte aldera. Ildo horretan, “Jolasten eta berziklatzen” sormen-eskulanak ikasteko tailerra eskainiko du lau eta zortzi urte bitartekoentzat. Debako Gela Berdean (Debanaturaren egoitzan) burutuko da, asteartero.



Kontzientzia-zio kanpaina ere egin nahi dute Deban, “Ikas-tailerrak herritarrentzat” izenburupean. Bi saio izango ditu guztira: berziklaiaren herria delakoa bata; eta “kontsumo kontzientea hobeto bizitzeko” eta “Trukelekuak” izenekoa bigarrena.

Azaroan, hondakinen prebentzioaren Europako Astea dela eta, “Debarrenatrak” bigarren eskuko merkatua burutuko da Eibarren. Eskualdeko herrietan Zero Zabor Bidearen Gynkana ospatzea ere aurreikusten da.

Zabalik dago Mintzalaguna programan izena emateko epea

Euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak eta mintzapraktika egin nahi duten pertsonak biltzeko programa da Mintzalaguna. Euskara hobetzeko, gehiagotan erabiltzeko, euskaraz bizitzeko, normalizazioaren alde egiteko, ingurune euskalduna sortu, indartu eta zabaltzeko... helburua du egitasmoak eta Deban Zuhatza Euskara Elkarteak kudeatzen du. Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babesten dute ekimena, eta euskaltegiaren eta Topagunearen laguntza ere badu.

Egitasmoan parte hartzeko baldintza bakarrak euskaraz komunikatzeko gai izatea eta astean ordubetez batzeko konpromisoa hartzea dira. Zabalik dago jadanik izena emateko epea (doan). Interesatuak Zuhatza elkartearekin jarri behar dira harremanetan: idatzi koordinatzailea@zuhatza.com helbidera, deitu 943 19 13 83 telefono zenbakira edo pasa elkartearen bulegotik (Ifar kalea, 12 behea).

Euskaraz blai
Empápate de Euskera

UDAL EUSKALTEGIAK
euskara klaseak • clases de euskera

IKASTURTEACURSO
matrikula zabalik
matrícula abierta

14-15

14-15
IKASTURTEACURSO
matrikula zabalik
matrícula abierta

IKASTAROAK


Aurrez aurrekoak: 2,3,edo 4 egun astean, mailaren arabera.
Autoikaskuntza interneten bidez
Ikastaro bereziak (enpresak, AISA, merkatariak eta ostalaritza)
Perfilak (Administrazioa, Osakidetzak, Hezkuntza, ...)
HABEren 1.,2., 3. eta 4. mailak
EGA

16 urtetik gorakoentzat

DIRU-LAGUNTZAK ETA BEKAK
Informa zaitetz Udal Euskaltegian!

Izenak emateko azken egunak!!

DEBABE UDAL EUSKALEGIA
Ifar kalea, 12
Telefonoa: 943 19 22 36
e-posta: debabe@telefonica.net



Agenda

Urriak 18, larunbata

-12:00. **Kalean Kantuz.** Kalejira Agirre jauregitik abiatuko da.

Urriak 19, igandea

-VI. **Debarrena BTT Martxa.** Irteera Elgoibarko Mintxeta Kirolgunean, 9:00etan. Bi ibilbide egongo dira: laburra (25 km) eta luzea (45 km). Informazio gehiagorako: www.debarrenaturismo.com edo 943 820 110.

Urriak 31, ostirala

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.

Azaroak 1, larunbata

-**Itziarko Peria.** Goizetik hasita, ganadu feria.

Azaroak 2, larunbata

-17:00. **Ipuin kontaketa.** Agirre jauregiko Ispiluen Gelan burutuko da. 17:00etan Haur Hezkuntzako haurrentzat; 17:45ean, Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailakoentzat; 18:30ean, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako neska-mutilentzat.

Sari banaketa: Gure Balioak 2014

-**Gure Balioak Sariak** Debarreneneko eskualdean gizarte balioen arloan nabarmendu den pertsona edo entitatea aitortzea eta saritzea du helburu; aurten, bosgarren edizioa beteko du. Debegesa Garapen Agentziak antolatuta, sari banaketa Mutrikun egingo da, azaroaren 5ean.

V. Kultur Astea Itziarren

Urriaren 14tik 19ra bitarte, Andutz Itziarko Kultur Taldeak antolatutako V. Kultur Astea ospatuko da.

Egun bakoitzean ekimen bat edo gehiago burutuko dira: oka erraldoia, jolas

kooperatiboak, txalaparta saioa, mahai-ingurua, kontzertua, mendi martxa, baba-jana... Andutz Kultur Taldearen Facebook-eko orrialdean ikus daiteke egitarau osoa.

Debanatura elkartearen ekimenak

-Urrirako jarduera ezberdinak antolatu ditu Debanatura elkarteak. Egitarauaren baitan daude, besteak beste, "Deba, zortzi txoko magikoak eta kondaira bat" ekimena (urriaren 18an

eta 25ean), edota baltsa neumatikoetan ibaian zehar burutuko diren txango gidatuak (urriaren 24an). Informazio gehiagorako: www.debanatura.net edo 695783656.

Beka deialdiak

-**Patxi Aldabaldetrecu Beka,** Debako Kultur Elkarteak antolatuta. Lanak aurkezteko epea azaroaren 17an bukatuko da. Informazio gehiagorako, jo Kultur Elkartera.

-**Gotzon Garate Beka,** Elgoibarko Udalak antolatuta.

Lanak aurkezteko epea azaroaren 25ean amaituko da. Informazioa eta oinarriak: www.elgoibar.org-en.

-**Tene Mujika Beka.** Informazioa eta oinarriak: aldizkariko 10. orrialdean eta www.deba.net atarian.

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **urriak 17, 18, 19, 27, 28, 29, 30.**
azaroak 14, 15, 16.

Burgoa Zuazo: **urriak 31.**
azaroak 1, 2, 10, 11, 12, 13.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: urriak 18 eta 25
azaroak 15

BURGOA ZUAZO: azaroak 1 eta 8

9:30 - 13:30

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlo.net

MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa
Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295

Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



Haztik
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
telef.: 943 02 99 63
e-mail: haztik@gmail.com

Jari zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatzia

943 191 383
berriketan@zuhatzia.com



AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

kutxa

kutxabank

RAIKETAK S.L.

SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behea - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

haizea

estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik

ISABEL
FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behea . 20820 DEBA
943 029 186

AZKUNE

FRUTA PRODUKZIOA ZERBITZUA
1975etik zuekin!

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Calbeton

JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI
ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: telarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara
Zapatuetan:
10:00etatik 14:00 etara

Doctor **Antonio Murillo**

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Leidako Unibertsitatea eta Madril.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Affonso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Implantologia Masterreko Irakaslea. **Leidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea. Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**

Hortz-Estetikan Diplomatua. **Autran Institutua, Bartzelona.**

Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**

Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURUAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
Galdetuiguazu!



IRAZABAL
clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com